

Euskal curriculuma Frantziako ikasketa-programan

Hego Euskal Herrian LOMCE legearen mehatxuak kezkatzen ditu, baina antzeko errealitatea aspalditik bizi dute Iparraldean. Maiatzaren 11n Herri Urrats ospatuko duen Seaska ikastolen elkarteak, Frantziako Hezkunde Nazionalaren ikasketa-programa jarraitzeaz gain, euskal curriculuma landu eta irakasten du.

| JOANES ETXEBARRIA |

GURASO TALDE BATEK Arrangoitzeko ikastola sortu zuelarik, elkarrekin eta bost ikaslerekin, “elebitasun orekatua” kausitzeko proposatu zuten hezkuntza ereduak “pedagogia metodo bereziak eta aitzindariak” behar izan zituela dio Seaskak bere webgunean. 1994. urteaz geroztik Frantziako Hezkunde Nazionalarekin kontratu pribatua izanik, ikasketa-programa estatalak bete behar dituzte, helburu propioak lantzeaz gainera. “Egiten den guztiak segitzen du ikasleak euskaldundu nahian, ez bakarrik hizkuntzatik, baita haien nortasunaren aldetik ere”, dio Jean Mixel Etxegarai Seaskako Hezkuntza zuzendariak.

Hasieran, Seaskak bere koadroa finkatu behar izan zuen, horrek ekar lezakeen askatasunarekin. “Janaria prestatzea edo mutilek jostea” kuriositate esperimental gisara aipatzen ditu Etxegaraik, garai haiek gogoran. Izan ere, lehen hamarkada esperimental izan zen batik bat: “Beharbada Hezkunde Nazionalako programetatik urrunduz, baina aldi berean Seaskak bazituen bere frogak egiteko, beraz bien arteko zerbait izan zen”.

Euskara koadro frantziarrean

Ikastolen diru-laguntzarako negoziaketak 1981. urtean hasi ziren, garaiko gobernu sozialistarekin, baina pedagogia mailan 1994. urtea izan zen mugarri, Seaskak Hezkunde Nazionalarekin kontratu pribatua izenpetu zuen urtea. Orduz geroztik Hezkunde Nazionalak enplegatzen ditu irakasleak, eta elkarte-ko langile izatetik kide izatera iragan ziren. Etxegarairen erranean, kontratu horrek

“Hezkunde Nazionalarengandik eta ikuskartizarengandik begirada gehiago ekartzen du”. Hala ere, ez du ikastolen helburuetan ondorio larrik: “Nahiz eta, kontratupean izanik, koadroa hertsitu den, Seaskaren xedeek eta egin moldeak segitzen dute”.

Helburu nagusia ikasleak euskarazko hiztun oso bilakatzea da. Euskalduntzea ez da hizkuntzatik soilik egiten, haien nortasuna ere euskal kulturen bustitzea baitute xede. Programa frantsesak bete behar badituzte

Programa frantsesak bete behar badituzte ere, irakasleek euskal kulturaren presentzia segurtatzen dute ikasgaietan. Frantziar iraultzaren irakurketak, adibidez, ez du zerikusirik ikuspegi frantziarretik ala euskaldunetik

ere, irakasleek euskal kulturaren presentzia segurtatzen dute ikasgaietan. Uztarketa horren adierazgarri da Historia geografikoa: ikastoletan erabiltzen diren liburuak Ikas zentroak itzulitakoak dira, argitalpen frantsesetan oinarrituak. Frantziar iraultza aipatzerakoan, adibidez,

erran gabe doa historiako gertakari horren irakurketak ez duela zerikusirik ikuspegi frantziarretik ala euskaldunetik egin bada. “Bistan da gure historia irakasleek ez dutela liburua bere horretan segituko eta euskaldunen aldarrikapenak lekua ukanen” dutela. Buruhaustea ere badira, ordea. Euskal curriculumak ikasgira eramatea irakasleen ardura da, eta programa frantsesa betetzeaz gain, adibidez, Nafarroako erresuma gehitu beharreko zerbait da. Hezkuntza zuzendariak onartu du “hautuak” direla, eta beharbada “beti mugan” dabilzala.

Ikasgaietan halako malgutasunarekin jokatzek ez du, Etxegarairen arabera, Hezkunde Nazionalako ikuskarietara azarorik sortzen: “Egia da dugun kontratuarengatik ezingo genukeela frantses programetatik osoki ihes



Helburu nagusia ikasleak euskarazko hitzun oso bilakatzea da. Euskalduntzea ez da hizkuntzatik soilik egiten, haien nortasuna ere euskal kulturaren bustitzea baitute xede. Irudian, Larzabalgo Erdozaintzi kolegioan.

egin, baina maiz ikuskariak interesatuak ageritu dira ikusteko zer berrikuntza atzematen ahal duten ezker eta eskuin". 2005ean Estatuan indarrean sartu zen Oinarri Komuneke Legeak berak babesten eta akuilatzen du esperientziazio pedagogikoa. Historiako adibideari jarraiki, programak zehazten du "historiako irakasle batek ahalik eta gehien lekuko aztarna eta adibideekin mamitu" behar duela ikasgaia.

Euskal curriculumak

Joera nagusiari jarraiki, gaitasunetan oinarritutako hezkuntza bultzatzen du curriculumak: "Egiten jakitea, izaten jakitea eta horiek denak mobilizatzen jakitea, bizitzan aurkitzen ditugun egoera konkretu eta konplexuak ebazteko", azaldu du Etxegaraik. Curriculumaren bigarren ardatza euskal kul-

tura, euskal historia, euskal nortasuna gartzean datza.

Muga administratiboaren ondorioak nabari direla gehitu du, eta pedagogia integratzailea ezberdin lantzen dela Hegoaldean eta Iparraldean, nahiz eta osagarriak izan: "Hego Euskal Herrian, sortzen duten materialetik pasarazten dute pedagogia integratzailea"; Seaskan berriz, irakasleen formakuntzan zentratzen dira gehiago: "Irakaslearen prestaketa horretan, egoera konplexu eta konkretuen ebazpenean ikasleak nola integratu ari gara lantzen, gaitasunak gartzeko bidean".

Zerbitzu publikoa pribatuan

Aipatu malgutasun pedagogikoa Estatuko ikastetxe guztiei irekia zaien arren, Sistema frantziarrean egonda euskal hitzun osoak sortu ahal izatea ahalbidetzen du Seaskaren





estatus bereziak, “ez baikara zuzenean eta osoki zerbitzu publikoengandik kudeatuak. Gure irakasleak hautatzea, formatzea, animazio pedagogikoak antolatzea, barne mugimendua... administrazioak eginen luke, zerbitzu publikoetan bagina, ez genuke hauturik”. Pribatu izaerak ematen dio elkarteari hori kudeatzeko ahala; hori bai, “eskizofrenia puntu bat” aitortzen du Etxegaraik: “Seaska murgiltze zerbitzu publiko bakarra da gaur egun, denbora berean estatusa pribatua da, baina horrek ematen digu gure etxearen jabe izatea”.

Seaskaren izaera pribatuagatik irakasleak hautatzea eta formatzea elkartearen esku bada ere, Hezkunde Nazionalak enplegatzen ditu, harekin duen kontratuagatik. Irakasle batek, lehen urteetan, Seaskaren barne formakuntza jarraitzen du gero Frantziako ira-

Frantziako curriculum euskal curriculumarekin uztartzeko, “beti mugan” dabilzala onartu digu Jean Mixel Etxegarai Seaskako Hezkuntza zuzendariak (argazkian).

kasle lehiaketetara aurkezteko. Fase horretan, irakasle titularrak izateko prestatzen direnean, “gure proiektua ezagutu dezaten eta gure hezkuntza ikuspegia jaso dezaten” zaintzen du Seaskak.

Formakuntza zentroa du elkarteak irakasleei zuzendua, eta hortik bideratzen dira Pedagogia Egunak ere. Jardunaldi horietan, gogoetak taldean plazaratzen dira, ildo batzuk markatzeko. Aurretik ahozkotetasunaren inguruan ari dira, ikasleen mintzamina nola indartu aztertzen. Jendartearen —eta bereziki hiriguneetan— euskararen erabilerak duen bilakaera kezka-garriak ondorioak ditu ikastoletan ere, Etxegaraik

azpimarratu duenez: “Ikastoletan sartzen diren ikasle gehienek ez dute euskara menperatzen eta errealitate horrek eramaten gaitu gogoetatzerara eta erabakitzerara nola egingen dugun indartzeko transmisio jabetze hori”. Lehen mailarako, adibidez, adin desberdinetako ikasleak gela berean nahastea lehenetsi dute, txikienek helduagoak euskaraz entzun ditzaten, eta txikienei irakastea helduenentzako akuilu izan dadin.

Arrakastaren datuak

Seaskak bidea urratu behar izan du den heinera heltzeko, eta botere publikoekin, jakina denez, borrokan segitzen du oraino ere. Baina bere ikasgeletara gero eta haur gehiago hurbiltzen denez, gero eta gehiago dira ikastetxeak. Kolegioak hiru dira, eta lizeo bakarra bada ere, 2015ean lizeo profesionala irekitzeko xedea bada Miarritzen. Orotara 3.100 ikasle ziren 2013an, eta gehiagoren mentura bada heldu den ikasturterako.

Beste datu bat ere aipatu da azken urteetan arrakastaren seinale gisara: ikastolako ikasleen ehuneko ehunak Baxoa lortu izana. Unibertsitatara sartzeko ezinbestekoa den azterketaren emaitza horien interpretazioari aldiz, ñabardura egin nahi die Etxegaraik: “Ez dugu sekula helburutzat hartu ehuneko ehunak lor dezan Baxoa. Elementu inportante eta atsegina da, baina ikusi behar da zenbat sartzen diren kolegioan eta zenbat Baxo orokorrean (lizeoan), baloratzeko beste irizpide batzuk har genitzake”. ■



Manex
KANPALEKUA

Senpereko aintziratik bi kilometretan eta mendiez inguratutik, MANEX kanpalekua: bakantzetako eta deskantsuko parabisu bat. 30 lekuek presentatzen dute bista bat ezin ederragoa. **Ongi etorri !**

64310 **SENPERE**
Tel. 05 59 54 13 42

camping.manex@wanadoo.fr
www.campingmanex.com